

Euskararen ahozko kale-erabilera: erronkak

**Uso oral del euskera en las calles de Euskal Herria:
los retos**

**Usage oral du basque dans les rues du Pays Basque :
les enjeux**

**Oral use of basque in the streets of the Basque
Country: the challenges**

ALTUNA ZUMETA, Olatz
Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria

IÑARRA ARREGI, Maialen
Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria

Noiz jaso: 2017-03-07

Noiz onartua: 2017-09-14

Euskera. 2016, 61, 2. 407-438. Bilbo
ISSN 0210-1564

2017ko uztailean argitaratu ziren Hizkuntzen Erabileraren VII. Kale-Neurketako datuak. Artikulu honetan jaso ditugu Euskal Herriko kaleetako euskararen ahozko erabileraren 2016ko datu berriak. 1989. urtetik Euskal Herriko euskararen erabilerak 2,5 puntuko igoera izan bazuen ere, azken hamar urtean behera egin du. Egoera honek euskara biziberritzen jarraitzeko erronka berriak definitzera behartzen gaitu ondorioz, eta lerro hauetara ekarri dugu proposamen bilduma bat.

Hitz-gakoak: kale-erabilera, Kale-Neurketa metodologia, diagnostia, Hizkuntzen Erabileraren Euskal Herriko VII. Kale-Neurketa, erronkak.

En julio de 2017 se publicó la VII Medición del Uso de las Lenguas en las calles de Euskal Herria. En este artículo publicamos los nuevos datos que se recogen de las mediciones realizadas en 2016. Si desde el año 1989 hasta el 2006 el uso del euskera en la calle subió un 2,5 %, los últimos diez años ha habido un retroceso. Esta situación nos lleva a replantearnos nuevos retos para revitalizar el euskera, y es por ello que traemos a colación en este texto una serie de propuestas.

Palabras clave: Uso de las lenguas en la calle, metodología para la medición del uso de las lenguas en las calles, diagnóstico, VII Medición del Uso de las Lenguas en las calles de Euskal Herria, retos.

En juillet 2017 furent publiés les résultats de la VII^{ème} Mesure de l'Usage des Langues dans les rues du Pays Basque. Nous publions dans cet article les nouveaux résultats collectés suite aux mesures réalisées en 2016. Si, entre 1989 et 2006, l'usage du basque dans la rue a augmenté de 2,5 %, on a observé un recul au cours des dix dernières années. Cette situation nous amène à définir de nouveaux enjeux pour la revitalisation du basque, c'est pourquoi nous faisons dans ce texte une série de propositions.

Mots-clés : L'usage des langues dans la rue, méthodologie pour la mesure de l'usage des langues dans la rue, diagnostic, VII^{ème} Mesure de l'Usage des Langues dans les rues du Pays Basque, enjeux.

July 2017 saw publication of the 7th survey of the use of Basque on the streets of the Basque Country. This paper publishes the new data gleaned from the measurements taken in 2016. While from 1989 to 2006 the use of Basque in the street rose by 2.5%, in the last ten years there has been a decline. This situation leads us to posit new challenges in revitalising Basque, and a series of proposals are therefore made in this article.

Keywords: The use of languages in the street, methodology for measuring the use of languages in the street, diagnosis, 7th Measurement of the street use of languages in the Basque Country, challenges.

1. Sarrera

Euskararen ahozko erabileraren diagnosis egingo dugu artikulu honetan, azken 30 urte hauetan Euskal Herrian egindako kale-neurketen emaitzak aztertuz. Diagnosi horri erreparatuta, lehenik eta behin nabarmendu behar dugu errealitate ezberdinak ditugula lurraldeka -eta lurralde bakoitzaren baitan ere errealitateak ez direla berdinak-. Bakoitzaren abiapuntua ez baita bera, ez eta erabilerak gerora izan duen bilakaera ere. Hori erakutsi digute, besteak beste, kale-neurketen datuek. Beraz, oro har Euskal Herrian euskararen kale-presentzia ez da homogeneoa. Hiztunen adinak, generoak edota haurren presentziaren indarrak ere modu ezberdinetan eragiten dute euskararen erabileran, eremu batean edo bestean. Errealitate anitz horren argazkia atera dute Kale-Neurketek, eta horregatik zaigu ikerketa hau diagnosis egiteko baliagarri.

Ikerlan horren metodologia eta ibilbidea azalduko dugu zehatz-mehatz bigarren atalean, eta ondoren, hirugarren atalean egingo dugu diagnostikoa. Azkenik, egungo egoera hobetzeko -finean, erabilera areagotzeko- soziolinguistika arloan aditu batzuek proposatutakoak ekarri ditugu. Horretarako nagusiki bi bide baliatu dira: batetik, euskararen bilakaera soziolinguistikoa erabileraren ikuspegitik aztertzen duen 100. BAT Soziolinguistika aldizkaria eta VII. Kale-Neurketaren emaitzak aztergai zituen 2017ko uztaileko *BE-RRIA* egunkariko «Euskararen bilakaera soziolinguistikoa» udako seriea. Eta bestetik, azken urte hauetan Soziolinguistika Klusterrak burutako ikerketa-lerroetan nabarmendutako ondorioak.

2. Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa

Euskararen erabilera areagotzeko aurrera begira ditugun erronkak zehazteko, ezinbestekoa da egungo egoeraren diagnostiko batetik abiatzea. Hau da, egoera hobetze bidean martxan jar litezkeen erronkak lehenik eta behin zein egoeratan arabera sailkatzeko, beharrezkoa dugu lehenik eta behin zein egoeratan gauden kontuan izatea.

Euskal Herri osoko erabilera datuak aztertzerakoan, pare bat iturri esanguratsu ditugu: Inkesta Soziolinguistikoa batetik, eta Euskal Herriko Ka-

le-Neurketa bestetik. Erabileraren inguruan informazio interesgarria eskaintzen digute biek ere, eta gainera, denbora-serie luzeak ditugu bi iturrietan. Kasu honetan, diagnosi hori egiteko Soziolinguistika Klusterrak lau-bost urtean behin Euskal Herri osoan burutzen duen Kale-Neurketak utzitako emaitzetara mugatuko gara.

Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketan, Euskal Herriko kaleetan entzuten den hizkuntza erabilera behatzen da. Hau da, ikerketa honek hiztunen kale-erabilera du aztergai, eta datu-bilketa hori behaketa teknika bidez egiten da; neurtzaileek entzuten dena jasotzen dute kalean dabiltzan hiztunei ezertxo ere galdetu gabe, alegia. Hiztunak ez du jakiten behatua izaten ari denik, eta neurtzaileek hiztunaren berezko joera jasotzen dute. Modu honetan, inkesta bidezko datu-bilketen subjektibotasuna saihesten da, emaitza fidagarriagoak lortuz.

2.1. Euskal Herriko Neurketaren ibilbidea

Hizkuntzen Erabileraren Euskal Herriko Kale-Neurketa ibilbide luzeko ikerketa-lan bat da. Erabilera neurtzeko metodoaren sortzailea Siadeco Ikerketa Taldea izan zen (Iñaki Larrañagaren gidaritzapean etorri zen oinarrri hau); izan ere, 1981eko EAEko zentsuak estreinakoz jasotako hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak euskararen egoera soziolinguistikoa deskribatzeko nahikoa ez zirela nabarmendu zen garai hartan. Hala, kezka horri aurre eginez, 1983. urtean Kale-Erabileraren Neurketa metodologia sortu eta Gipuzkoako udalerrri guztietan neurketak egin zituzten.

Bilakaera

1989. urtean Euskal Kultur Batzordeak (EKBk) Euskal Herriko udalerrri handienetan (10.000 biztanletik gorako udalerrietan) erabileraren neurketa burutzea erabaki zuen, Euskal Herriko Lehenengo Kale-Neurketa bideratzea ahalbidetuz. Geroztik, Euskal Herri mailan beste sei aldiz errepikatu du Soziolinguistika Klusterrak (aurrez SEI Elkarteak), azken urteetan zentsu eta errolda urtearekin bat eginez (aurrerantzean ere hala egingo da):

1993, 1997, 2001, 2006, 2011 eta 2016. urteetan. Ondorioz, dagoeneko ia hogeita hamar urteko esperientzia metatuta, metodologia aski frogatua eta kontrastatua dugu.

Neurketa guztiek oinarri metodologiko bera badute ere, ikerketa osatu eta lortzen diren emaitzak hobetze aldera, neurketa batetik besterako egokitzapenak gauzatu dira. Aipaturiko zazpi edizioen garapenean, moldaketa nagusienak laginketa ereduetan eta neurtutako aldagaietan egin izan dira.

- Laginketa ereduari dagokionez, hasiera batean, 10.000 biztanletik gorako udalerrietan (1989) egin zen neurketa; jarraian, 5.000 biztanletik gorako udalerrietan eta 5.000tik beherako udalerrri kopuruaren % 10¹ behatu zen (1993 eta 2001²); lagin hori oinarri hartuta optimizatu zen 2006 eta 2011ko lagina; eta 2016ko azken edizioan, ahalik eta eskualde gehienen datu adierazgarriak lortu ahal izateko laginketa eredu osatu da³.
- Behatutako aldagaiei dagokionez, ordea, hasieran erabilera indizeak adin-taldeka neurtu ziren (1989 eta 1993⁴) eta 1997. urtean sexua eta haurren presentzia aldagaiak gehitu zitzaizkion datu-bilketari (geoztik hiru aldagai nagusi horiek mantendu dira 2001, 2006, 2011 eta 2016ko edizioetan ere). Gainera, azken bi edizioetan datu-bilketarako osatu ziren fitxa berriei esker, behatzen ditugun elkarrizketen kopurua jakin dezakegu⁵.

¹ Udalerri txiki horien % 10 aukeratzeko, euskararen ezagutzaren araberako eta herri tamainaren araberako tipologiak kontuan hartu ziren. Ipar Euskal Herrian euskaldunen portzentajerik ezagutzen ez denez, ez zen metodo hori aplikatu.

² Ipar Euskal Herrian 1.000 hiztunetik gorako udalerrriak behatu ziren.

³ Emaitzak ez dira fidagarriak udalerrrika. Horretarako, interesa duten udalerrriek berariazko eskaera luzatu behar diote Soziolinguistika Klusterrari. Behin eskaera eginda, herriko errealtatea kontuan hartuz diseinatzen da bertako neurketa.

⁴ Bigarren edizio honetan, talde tamaina ere neurtu zen J.L. Alvarez Enparantza «Txillardegia»-ren eredu matematikoa aztertzeko. Hau da, hitz egiten ari direnak bikoteka, hirukoteka, laukoteka, boskoteka edo talde handiagoan doazen behatu zen.

⁵ Gero azalduko dugun moduan, zinez beharrezkoa errore mailaren kalkuluak egiteko.

- Aipagarria da 2016ko neurketan gaztelania eta frantsesa hizkuntzak bereizi direla. Orain arte hizkuntzak hiru multzotan bereizten genituen: euskara, gaztelania/frantsesa, eta beste hizkuntzak. VII. edizioan, berriz, lau multzo behatu dira: euskara, gaztelania, frantsesa eta beste hizkuntzak.

Hala eta guztiz ere, datuak konparagarriak izan daitezken, neurketa guztietan datu-bilketa modu berean errepikatu da eta beharrezko analisi estatistikoak burutu dira hobekuntza edo aldaketa horien eragina ebaluatzeko.

Garapena

Azken urteetan metodologiak izandako hobekuntza eta garapen teknikoegi begiraturaz, bi dira aipagarrienak: alde batetik, Euskal Herriko Kale-Neurketaren VI. edizioan (2011. urtean), lagin-akatsa kalkulatzeko eredu matematiko bat egin zen, eta bestetik, jarraian, telefono mugikorrean datuak jasotzeko aplikazioa sortu zen.

- Lehenengo garapenari dagokionez, lagin-akatsaren kalkuluarekin neurketetatik lortzen ditugun datuen adierazgarritasuna baloratzen da. Horretarako, neurketan behatutako elkarrizketa kopurua eta herriko ezagutza-datuak dira beharrezkoak⁶.
- Datu-bilketak mugikor bidez egiteak, berriz, behaketa burutu bitarteko diskrezioa hobeto lortzea ahalbidetzen digu. Hala eta guztiz ere, esperientziak esan digu mugikor bidezko datu-bilketa motelagoa dela jende gehiago eta, ondorioz, elkarrizketa gehiago entzuten ditugun kaleetan (momentu berean entzuten diren elkarrizketak mugikor bidez jasotzeko zailtasunak izan ohi dituzte neurtzaileek). Horregatik, mugikor bidezko datu-bilketak herri txikiagoetan burutu ohi ditugu, elkarrizketak maiztasun gutxiagorekin entzuten baitira eta denbora gehiago baitute neurtzaileek elkarrizketa mugikorrean modu zuzenean sartzeko.

⁶ Ikus «Laginaren kalkulurako tresna»: <http://www.soziolinguistika.eus/lagina>

Beste hainbatetan, esparru desberdinetatik euskararen egoera soziolinguistikoaren diagnostikoa ezagutu nahian jaso izan ditugun eskaerak tarteko, Euskal Herriko Kale-Neurketa burutzeko erabiltzen dugun metodologia hau behar berezietara egokitu izan da gune bereziagoetan neurketak bideratzeko. Hau da, datu hauen baliagarritasuna kontuan hartuz, gero eta interes handiagoa dago metodologia hau beste esparruetan aplikatzeko ere, eta ondorioz, azken urteetan Soziolinguistika Klusterrak ondorengo egokitzapen hauek ere burutu ditu:

- Gune mugatuetako neurketak: leku «itxietan» egiten diren neurketak. Adibidez, lantokietan eta ikastetxeetan.
- Eskolaz kanpoko kirol jardueretan neurketak: gaztetxoenen aisialdi eremuko hizkuntza-erabilerak gertuagotik aztertzea ahalbidetzen digu.
- Herri txikietan neurketak euskara gaitasuna aldagai moduan txertatuta: euskaldunen arteko hizkuntza-erabilerak zer-nolakoak diren jakiteko aukera eskaintzen digu.
- Hitanoaren kale-erabilera behatzeko neurketak: herriko hizkuntza-erabilera neurtzearekin batera burutzen diren neurketak dira⁷.

Euskal Herrian sorturiko metodologia honek hizkuntzen egoera zertan den ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia bilakatu diren datuak eskaintzen dizkigu. Euskal Herritik kanpora, guk dakigula, ez da behaketa bidezko halako datu-bilketa handirik burutzen; eta horregatik, atzerrian ikerlanak jakin-mina eta interesa sortu du. Euskararen egoera diagnostikatzeko hain baliagarria zaigun tresna ahozko erabilera kuantifikatu nahi duten ikerlariarentzat eta, bereziki, hizkuntza gutxiagotua duten komunitateei zein hizkuntza-aniztasuneko egoerak aztertzeko erabat baliagarria da (Altuna eta Basurto, 2013).

2.2. Euskal Herriko Kale-Neurketa: metodologia

Euskal Herriko Kale-Neurketan erabiltzen den metodologiaren azalpena *Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko Gida Metodologikoa* argitalpe-

⁷ Garapen bidean dagoen metodologia da honakoa. 2016. urtean bi esperientzia pilotu egin badira ere, oraindik ere metodologiak gehiago fintzea eskatzen du.

nean jasotzen da (Altuna eta Basurto, 2013). Hala eta guztiz ere, ondorengo lerroetan metodologiaren ezaugarri nagusiak bilduko ditugu.

Aztergaia: ahozko erabilera

Soziolinguistika arloak bat egiten du hizkuntza baten egoeraren adierazle esanguratsuen eta fidagarriena **erabilera** dela esatean. Gainera, eguneroko ohiko harreman horietan erabiltzen dugun hizkuntza hori izan ohi da «osasu» egoera onean dagoena. Horregatik, ahozko erabilera aztertzen da metodologia honen bidez; izan ere, **ahozkoa** da hiztunaren hizkuntza-erabilerarik naturalena (Altuna eta Basurto, 2013).

Ikerketaren helburu orokorra Euskal Herriko, eta bertako herrialdeetako, hizkuntza-erabileren datuak eskuratzea da, **kalean** euskararen eta beste hizkuntzen presentzia zenbatekoa den kuantifikatuz (Altuna eta Basurto, 2013). Kalea bera ere espazio neutrala dela (adin, sexu, klase... guztietako pertsonak ibiltzen dira), herritarren jarduera publikorako eremua dela (lagunekin elkartzeko, jolasteko, harremantzeko...) eta eremu pribatu batetik besterako bidea dela (lantokia, etxea, eskola, zerbitzuguneak...) kontuan hartuz (Altuna eta Basurto, 2013), eguneroko ohiko harreman horiek aztergai dituen ikerketa burutzen da metodologia honen bidez. Horregatik, hizkuntzen egoera soziolinguistikoa deskribatzerakoan garrantzizko adierazlea da.

Metodologiaren oinarria: behaketa teknika

Metodologia honen bidez, ahozko hizkuntza-erabilera **behaketa** bidez neurtzen da. Neurtzaileek hiztunak neurketaren momentuan darabilen hizkuntza jasotzen dute zuzenean, ezer galdetu gabe. Ondorioz, garrantzitsua da behaketa hori **diskrezioz** burutzea; izan ere, hiztuna behatua izaten ari dela ohartuz gero, bere ohiko hizkuntza-praktika aldatzeko aukera izango luke, eta gure helburua hizkuntza bakoitza erabiltzearen ekintzak zenbateko maiztasun erreala duen kontrolatzea da. Hala, hizkuntza-praktika horiek jasotzeko kalean entzuten ditugun **elkarrizketei** erreparatzen diegu; horixe da gure behaketa-unitatea.

Diseinua

Neurketa bakoitzak bere diseinu propioa du, non neurketa bideratuko den neurraldiak eta ibilbideak, neurtuko diren aldagaiak eta datu-bilketa egiteko modua zehaztuko diren.

Neurraldiei dagokienez, Euskal Herriko Kale-Neurketan 2006tik aurrera datu-bilketa neguko ordu aldaketa baino lehen egiten da, eguneko argi orduak gehiago diren heinean kalean jende gehiago beha dezakegulako. Hego Euskal Herrian, asteazkenetan 18:00-20:00 bitartean, eta larunbatetan 11:00-13:00 eta 18:00-20:00 bitartean burutzen dira neurketak; eta Ipar Euskal Herrian, berriz, ordutegia aurreratzen da: asteazkenetan, 16:00-18:00 bitartean eta larunbatetan, 10:00-12:00 eta 16:00-18:00 bitartean. Azken edizioetan lauzpabost astetan zehar osatzen dira neurraldi guztiak.

Laginketa egin ostean, behatuak izango direla erabakitako herrietan, kalerik jendetsuenak biltzea irizpide nagusitzat hartu (plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, eta abar.) eta neurtu beharreko kale horiek finkatzen dira **ibilbidea(k)** definituz. Toki itxiak neurketatik kanpo gelditzen dira. Garrantzitsua da, edizio batetik besterako datuak konparagarriak izan daitezen, ibilbideak bere horretan osatuta mantentzea. Dena den, herrietako urbanizazio prozesuak tarteko, edizio batetik bestera kale dinamika duten eremu berriak gehituz ibilbideak berritzea erabat zentzuzkoa da.

Euskal Herriko Neurketan, behatzen ditugun hiztunen hainbat ezaugarri ere kontuan hartzen dira hizkuntza-erabilera datuak biltzerakoan: sexua (emakumezkoa ala gizonezkoa izatea), adin-taldea (haurra, gaztea, heldua ala adinekoa izatea⁸) eta haurrak hizketan ari ote diren (bai ala ez) jasotzen dute neurtzaileek. Ondorioz, emaitzak aztertzerakoan **aldagai** horien arabera erabilera datuak ere eskura izaten ditugu.

Azkenik, datu-bilketarako **neurtzaile bikote** batek ibilbide batean zehar neurketa bideratzeko ardura izaten du, bikotea izatea komenigarriagoa bai-

⁸ Haurrak 0-14 urte bitartekoak dira, gazteak 15-24 urte bitartekoak, helduak 25-64 urte bitartekoak, eta adinekoak 65 urtetik gorakoak (neurtzaileek estimatzen dute adina).

ta diskrezioa mantentzeko. Era berean, diskrezioa kontuan hartuz eta ibilbide horren berezitasunak kontuan hartuz, datu-bilketa bideratuko duten **modua** definitzen da: ohiko fitxak erabiliz edo mugikorreko aplikazio bidez burutu dezakete neurketa.

Emaitzen irakurketa

Ikerketa honen bidez lortzen ditugun kale-erabileraren datuak Euskal Herriko kaleetan entzuten ditugun elkarrizketek eskaintzen digute. Dena den, emaitzak aztertzerakoan ez dira behatutako elkarrizketa horien hizkuntza-erabilera datuak aurkezten, baizik eta elkarrizketa horietan parte hartu duten **solaskide** kopuruarekin kalkulaturako datuak⁹ aurkezten dira¹⁰.

Hala ere, herrietako datuak interpretatzerakoan funtsezkoa da konturatzeari eskaintzen diguten herriko egoera soziolinguistikoaren argazkia parametro batzuen baitan ulertu behar dela. Hasteko, ezin dugu esan datuek euskal herritarren kaleko erabileraren datuak eskaintzen dizkigutenik; izan ere, kalean topatzen ditugun solaskide guztiak ez dute zertan Euskal Herrian bizi direnak izan. Horregatik, zuzenagoa da **Euskal Herriko kaleetako hizkuntzen erabileraz** hitz egitea.

Bestalde, kontuan hartzekoa da emaitza hauek eskaintzeko behatuak izan diren hiztunek osatu duten **lagina** nolakoa den. Hau da, aldagaien arabera unibertsoaren eta laginaren arteko alderaketa eginez gero, ohikoa da, adibidez, Hego Euskal Herrian laginean unibertsoan baino haur edo heldu gehiago izatea proportzionaliki; eta Iparraldean, berriz, lagineko adin-taldeen pisua unibertsoko adin-taldeen pisuarekin bat etortzea, gutxi gorabehera. Ondorioz, herriko erabilera datu horien arabera dela esatean, kontuan izatekoa da hiztun profil batzuk gutxiago behatu ohi ditugula.

⁹ Elkarrizketa-taldeko kide bati (edo gehiagori) entzun ohi diote neurtzaileek (ez beti guztiei), eta hizkuntza hori taldeko partaide guztiei esleitzen zaie.

¹⁰ Bi modutan aztertuta ere, emaitzek joera bera adierazi ohi dute.


3. Egungo egoeraren diagnosis:

Aurrez esan bezala, gaur egun Euskal Herriko euskararen egoera soziolinguistikoa hobetze aldera ditugun erronkak zehazteko, ezinbestekoa da diagnosi batetik abiatzea. Diagnosi hori osatu dugu atal honetan Hizkuntzen Erabileraren Euskal Herriko Kale-Neurketek eskaintzen dizkiguten datuak kontuan hartuz.

3.1. Euskal Herriko VII. Kale-Neurketa: 2016ko emaitza nagusiak

2017ko uztailean aurkeztu ziren hizkuntzen kaleko erabileraren Euskal Herriko datu berriak. Azken hilabeteotan zeresana izan dute Euskal Herriko euskararen egoera soziolinguistikoa ebaluatzeko, izan ere, 2011ko datuek adierazitako joerei jarraituz, **azken hamar urteetan euskararen kale-erabilera apaldu egin da** (1. grafikoa) (Soziolinguistika Klusterra, 2017).

1. grafikoa: Euskararen kale-erabileraren bilakaera. Euskal Herria, 1989-2016. (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016.

Zenbatekoa da hizkuntzen egungo ahozko kale-erabilera? Euskal Herriko kaleetan entzundako elkarrizketetako **solaskideen % 12,6 euskaraz** ari zen 2016an; % 76,4 gaztelaniaz eta % 8,3 frantsesez ari ziren; eta azkenik, % 2,7 zen beste hizkuntza batean ari zena. Dena den, ezberdintasun handiak daude lurraldeak kontuan hartuz gero.

2. grafikoa: Hizkuntzen kale-erabilera. euskal herria, 2016. (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016.

Lurraldeka, ezberdintasun handiak

Hirugarren irudiari begiratu gero, lurralde bakoitzaren egoera soziolinguistikoa ezberdina dela ikus daiteke, euskararen kale-erabilerari dagokionez. Gipuzkoan jaso da euskararen kale-erabilerarik altuena (% 31koa). Bizkaian, berriz, ia % 9ko euskararen kale-erabilera behatu da. Nafarroako kale-erabilera ia % 7koa izan da, eta Ipar Euskal Herrian, berriz, % 5eko

kale-erabilera behatu da. Azkenik, euskara gutxien erabiltzen den lurraldea Araba da, ia % 5eko erabilera datuarekin.


3. grafikoa: Euskararen kale-erabilera. Lurraldeak, 2016 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016.


Lurralde bakoitzean erabilera-maila ezberdinak ditugu, beraz. Ildo bere-tik, lurralde guztiek ez dute bilakaera bera izan hogeita zazpi urte hauetan. Lautada baten irudia hartzen dute Araba, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko bilakaeren grafikoek, jarraian ikus daitekeen moduan. Baina aipagarriak dira bi ohar: Arabako eta batez ere Nafarroako erabilerak azken bost urtee-tan gora egin izana, batetik; eta bestetik, Ipar Euskal Herrian, inoizko era-bilera-indizerik baxuena behatu izana.

4. **grafikoa:** Euskararen erabileraren bilakaera. Araba, 1989-2016 (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016.

5. **grafikoa:** Euskararen erabileraren bilakaera. Nafarroa, 1989-2016 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016.


6. **grafikoa:** Euskararen erabileraren bilakaera. Ipar Euskal Herria, 1989-2016 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016.

Gipuzkoari begiratzeko badiogu (7. grafikoa), neurketaz neurketa euskararen kale-erabilerak etengabe gora egin duela esan behar dugu; azken bost urtean, ordea, atzera egin du erabilerak.

Bizkaiaren kasuan (8. grafikoa), erabilerak 1997ra arte gora egin eta 1997-2006 urte bitartean bere horretan mantendu ostean, azken hamar urteetan behera egin du. Bizkaian Euskal Herriko biztanleriaren % 40 bizi den heinean, kontuan izan behar dugu Bizkaiko erabileraren bilakaerak zuzenki eragiten duela Euskal Herriko euskararen kale-erabilerarenean ere.

7. **grafikoa:** Euskararen erabileraren bilakaera. gipuzkoa, 1989-2016 (%)

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016.


8. **grafikoa:** Euskararen erabileraren bilakaera. bizkaia, 1989-2016 (%)

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016.

Ezagutzaren arabeko emaitzak


Ezagutzaren datuak euskararen kale-erabileraren datuekin konparatzean ere, informazio interesgarria lortzen dugu. 9. eta 10. grafikoetan ikus daitekeenez, ezagutza datuen arabera bereizten ditugun zonalde linguistiko-koen erabilera datuak kalkulatu gero, joera nagusia da euskara gaitasuna handiagoa den herrietan euskararen kale-erabilera ere altuagoa dela. Bilakaerak aztertzen baditugu, ordea, desberdintasunak sumatzen ditugu Hego Euskal Herriko zein Ipar Euskal Herriko ezagutzaren araberako eremuetan.

9. grafikoa: Euskararen erabileraren bilakaera, eremu soziolinguistikoaren arabera. Hego Euskal Herria, 1993-2016. (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016.

10. grafikoa: Euskararen erabileraren bilakaera, eremuen arabera.
Ipar Euskal Herria, 2011-2016. (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016.

Ezagutza gutxiagoko eremuetan, Hego Euskal Herrian, azken bost urtean, bere horretan mantendu da erabilera (9. irudia); Ipar Euskal Herriko eremu horietan (BAM eta Lapurdi barnealdea¹¹), ordea, azken bosturtekoan jaitsiera gertatu da.

Elebidun gehien duten eremuetan, berriz, euskararen erabilerak behera egin du Hego Euskal Herrian azken bost urteetan; eta Ipar Euskal Herriko ezagutzarik altueneko eremuan (Nafarroa Beherea eta Zuberoa¹²) igoera sumatu da.

Emaitza hauek interpretatzerakoan, kontuan hartzekoa da eremu soziolinguistiko bakoitzean kokatzen den biztanleriaren pisua.

Hego Euskal Herriari dagokionez, %25etik beherako ezagutza duten udalerrietan bizi da biztanleen %64; biztanleriaren %18 da ezagutza %25-

¹¹ VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2016an Baiona, Angelu, Miarritze eta Bokale eremuan %8ko elebidun kopurua zegoen, eta Lapurdi barnealdean, berriz, %25ekoa.

¹² VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2016an Nafarroa Behereko eta Zuberoako elebidun kopurua %50ekoa da.


50ekoa duten udalerrietan bizi dena; ezagutza datua % 50-75 bitartean kokatzen den udalerrietan biztanleriaren % 12 bizi da; eta azkenik, % 7 bizi da % 75eko ezagutza maila baino altuagoa duten udalerrietan. Gauza bera gertatzen da Ipar Euskal Herrian ere: ezagutza gutxienera eremuetan (BAM-en eta Lapurdi barnealdean) bizi da biztanleriaren % 84 eta Nafarroa Beherean eta Zuberoan bizi direnek % 16 osatzen dute.

Ondorioz, garrantzitsua da Euskal Herriko biztanleen gehiengo zonalde erdaldunenetan bizi dela kontuan izatea datuak interpretatzerakoan.

Euskal Herrian zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara

Euskararen erabilera hiztunen adin-taldeen arabera aztertuko bagenu, gaur egun hurrek hitz egiten dute euskaraz gehien, gazteek ondoren, helduek, eta, azkenik, adinekoek. Beti ez da horrela izan, ordea. 1989. urtean behatutako erabilerekin bestelako hurrenkera jaso zen, erabilera handienetik apalenerantz: haurrak, adinekoak, helduak eta gazteak. Gaur egun, hizkuntzaren berreskuratzeari begira, hurrenkera egokiena dugu, beraz.


11. grafikoa: Euskararen erabilera, adin-taldeen arabera. Euskal Herria, 2016. (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabilerearen Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016.

Hogeita zazpi urteko bilakaeran (1989tik 2016ra) haurren, gazteen eta helduen erabilerak gora egin du eta adinekoen erabilerak, berriz, etengabeko beherakada izan du. Baina azken hamar urteotan adin-talde guztietan atzerakada gertatu da.

12. grafikoa: Euskararen erabileraren bilakaera, adin-taldearen arabera. Euskal Herria, 1989-2016. (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016.

Euskal Herriko euskararen erabileraren bilakaera orokor horren bi joera nagusiak errepikatu dira Bizkaian eta Gipuzkoan¹³. Araban eta Nafarroan, ordea, azken bosturtekoan adin-talde guztietan izan du gorakada euskararen erabile-


¹³ Azken bost urtekoan Bizkaiko haurren eta helduen erabilerak egonkor egon badira ere, eta Gipuzkoan adin-talde guztietako euskararen erabilera jaitsiera hori beranduago gertatu bada ere (2011tik aurrera).

rak¹⁴. Eta azkenik, Ipar Euskal Herrian, haurren euskararen erabilerak 2006tik datorren goranzko joerari eutsi dio, gazteen eta helduen erabilerak bere horretan dira, eta adinekoen erabilerak behera jarraitzen du edizioz edizio.

Adinaren eta sexuaren arabera emaitzak

Adinaren eta sexuaren aldagaiak gurutzatuz gero, emakumezkoek gizonezkoek baino euskara gehiago darabilte adin-talde guztietan, adinekoetan izan ezik (13. grafikoa). Adinekoen taldean, gizonezkoek euskara gehiago erabiltzen dute emakumezkoek baino.

13. grafikoa: Euskararen erabilera, sexua eta adin-taldearen arabera. Euskal Herria, 2016. (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016.

¹⁴ Salbuespen dira Arabako adinekoen zein gazteen erabilerak: bata mantendu egin da, eta besteak zertxobait behera egin du, hurrenez hurren.

Aurreko bi edizioetan ere portaera hau errepikatu zen (14. grafikoa), eta 2016an Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian emakumezkoek gehiago egitearen portaera lehen aldiz atzemandu, dagoeneko portaera orokorra dela esan dezakegu lurralde guztietan.

14. grafikoa: Euskararen erabileraren bilakaera, sexua eta adin-taldean arabera. Euskal Herria, 2006-2016. (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016.

Haurren presentziaren eragina euskararen erabileran

Diagnostikoarekin bukatzeko, haurren presentziaren eragina izan da euskararen kale-erabileran gehien eragiten duen aldagaia. Elkarrizketak hiru

multzotan sailkatzen ditugu: haurrak bakarrik daudenean, nagusiak¹⁵ bakarrik daudenean, eta haurrak eta nagusiak talde berean daudenean. Azken mota horretako elkarrizketetan jasotzen dira euskararen kale-erabilerarik altuenak. Salbuespen dira Arabako zein Nafarroako kasuak: haurren arteko (nagusirik gabe) zein nagusien arteko (haurrik gabe) erabilerek maila bera adierazi dute 2016an.

15. grafikoa: Euskararen erabilera, haurren presentziaren arabera. Euskal Herria eta lurraldeak, 2016. (%)




Iurria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016.

¹⁵ Nagusizat definitzen ditugu haurrak ez diren beste hiru adin-taldeetako solaskideak, gazteak, helduak eta adinekoak alegia.

Bilakaerak aztertuz, azken hamar urtean aldaketarik handiena haurrek osatutako solaskide-taldeen euskararen erabileran gertatu dela ikus dezakegu: 3,6 puntuko jaitsiera izan du Euskal Herri osoko datuak kontuan hartuz. Nagusien arteko (haurrik gabe) zein haurrez eta nagusiz osatutako elkarrizketetako euskararen erabilerek, berriz, ez dute gorabehera esanguratsurik izan.

16. grafikoa: Euskararen erabileraren bilakaera, haurren presentziaren arabera. Euskal Herria, 2006-2016. (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016.

4. Erronkak: proposamen batzuk

Euskararen erabilera sustatzeko proposamenaren lanketa bi bidetan oinarritu dugu: batetik, BAT aldizkariko 100. alean, *Euskararen bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011): erabilera* izenekoan, biltzen diren analisiak eta Hizkuntzen Erabileraren VII. Kale-Neurketa emaitza berrietan oinarrituz, 2017ko uztailan BERRIA egunkariko *Euskararen bilakaera soziolinguistikoa* udako seriean jasotako aditu ezberdinen iritziak eta iradokizunak aztertu ditugu; eta bestetik, Soziolinguistika Klusterrean lantzen ditugun proiektuen emaitzek mahaigainean jartzen dizkiguten erronka berriak bildu ditugu. Bi iturri horietatik aukeraketa eginda osatu dugu proposamen multzoa. Oinarri bezala baliagarria den bilketa dela uste dugu, edonola ere, aurrera begira beste iturri batzuetara joaz osatu daitekeena.

Belaunaldi gazteentzat helduak eredu

Bi ideia nabarmendu nahi ditugu proposamen honetan: batetik, **helduok kontziente izan behar dugu haurrei eta gazteei euskara erabiltzeko esparruak izatea erraztu behar diegula**. Nola? Ohiturak apurtzeko baliabideak eta ekimenak aurrera eramanez, erreferente kulturalak sortuz edo horiek eskuratzeko tresnak eskainiz...; Non? eskolaz kanpoko jardueretan, aisialdian, ingurune hurbilean... Nolabait esatearren, gazteen motibazioa elikatu behar dugu haiei espazioak emanez (Etxenike eta Ramos, 2017).

Ildo beretik, ARRUE ikerketak (Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra, 2013) hainbat datu interesgarri utzi dizkigu gazteen erabileran eragiten duten faktoreak identifikatzeko. Ondorioetako bat izan da **eskolan ematen den erabilerak lotura oso indartsua duela eskolaz kanpo ematen den erabilerarekin**. Esate baterako, kirol arloan federazioek, klubek, ez dute apenas hizkuntza-irizpiderik gazteekin jardungo duten entrenatzaileek eta begiraleek behar duten ezagutza-mailarekiko, eta are gutxiago erabilerarekiko. Esparru horretan eragitea litzateke proposamenaren funtsa.

Zalbidek ere ezinbesteko eginkizun bezala planteatzen du eskolaz kanpoko esparru hori. Zehazki dio: «Seme-alabei euskara L1 (edo L1a/L1b gisa)

erakustea ez da aski; D edo B ereduko eskola ere ez: etxean eta eskolan ikasten den hori etxetik eta eskolatik kanpora erabili egin behar du umeak, gazteak edota helduak, euskal familia eratu eta haurrak izan arte. [...] Eskolaz kanpoko erabilera ardatz izango duen lehentasun-eskema berria eratu behar dugu: herritarren eguneroko jardun arrunta eta belaunez belauneko jarraipena segurtatzea edo indartzea helburu nagusi duen eskema berria». (Zalbide, 2016).

Bestetik, kontuan hartu behar dugu **helduon hizkuntza-praktikak garrantzia handia** duela, haur eta nerabeen hizkuntza hautua (erabilera) erabat lotuta baitago hizkuntzak gizartean duen balio praktikoarekin. Eta nagusien munduan elebiduna gutxiengo nabarmen bat da oraindik ere zonalde gehienetan (Etxenike, 2017). Sarri, belaunaldi gazteek barneratzen dute helduen praktika komunikatiboa erdaraz dela, eta hori bera erreproduzitzen dute beraiek nagusiagoak direnean.

Ondorio bera jaso dugu ARRUE ikerketan ere (Eusko Jaurlaritz eta Soziolinguistika Klusterra, 2013), alegia, ikasle gazteagoetatik helduagoetara ingurunean nagusi den hizkuntza-erabileraren arau sozialarekin konbergentzia egiteko joera dagoela. Besteak beste, horregatik DBH2n ikasleen arteko euskarazko erabilera baxuagoa da LMH4ko ikasleena baino. Batzuetan ahaztua edo alboratua dugu nagusien euskalduntzea, eta ez legoke gaizki helduen euskalduntze-alfabetatzean (Etxenike eta Uranga, 2017) eta beraien hizkuntza praktika eta kudeaketan fokua jartzea.

Gizarte aktibazioa

Gizarteko hizkuntza euskara bilaka dadin, ez da alferreko lana norbanakotik motibazio kolektibo konplexu eta esanguratsu baten (edo batzuen) bila hastea (Uranga, 2017). Izan ere, gaur egun, umeekin ez bada, euskara erabiltzeak prestigio sozialik ez du (Rodríguez, 2017).

Horregatik, euskararen biziberritzea nahi dugunok aktiboago jokatu behar dugu iruditeria sozialean eragiteko. Besteak beste, aukerak gehiago aprobetxatuz eta ulermenari etekina ateraz. Modu kolektiboan, betiere. Aurrerantzean euskaraz egitea hautu kontzientea izango da (Rodríguez, 2017).

Mugimendu instituzional eta sozialek erabiltzeko aukeretan zein motibazio kolektiboan eragina izango lukete, ziur asko (Uranga, 2017).

Hain zuzen ere, **garrantzitsua da herritarren aktibazioa herri eta eskualde mailan lantzea** eta hori lortzeko bidean hainbat gako identifikatu ditu Soziolinguistika Klusterrak, oraindik ere argitaratu gabe dagoen proiektu batean: behar sozial bati erantzutea, oinarri teoriko sendoak izatea abiapuntu, egitura irekiak eta horizontalak antolatzea, talde motor bat izatea, eragileen partaidetza egoki bideratzea, harreman eta giro ona izatea partaiden artean eta erakunde publikoen ekarpen ekonomikoa izatea...

Lan-munduan hizkuntza-ohiturak aldatzeko aukerak sozializatu eta zabaldu

Normalizazio-planetz oro har hitz egin dezakegu, baina erdigunean hizkuntza-ohituren aldaketa jarri nahiko genuke. Azken urte hauetan, Pello Jauregiren eskutik, SLK-ko Aldahitz proiektuan hizkuntza-ohiturak aldatzeko metodologia bat sortu da, «EUSLE» **metodologia** (Jauregi eta Suberbiola, 2014), eta emaitza positiboak ematen ari da, bai erdaraz hitz egiteko ohitura zuten euskaldunetan, eta baita euskaldun pasiboak elkarriketa elebidunetara ekartzeko ere. Metodologia horri esker, **euskaraz gehiago egin nahi duen talde baten borondatea praktikara** eramaten da, modu simple batean. Erabaki kolektibo batek legitimazio berri bat eskaintzen dio lankideen euskarazko jokoerari, eta ohiturak euskararantz aldatzeko atea zabaltzen du.

Paradigma aldaketa proposatzen du ikerketak, maiz nagusi izan den «Ikasi eta ondoren erabili» ikuspegitik baino «erabiliz ikasi»-tik hurbilago dagoen paradigmara, hain zuzen. Halako dinamiken sozializazioan eta hedapenean potentzial handia dago euskarazko erabileraren hazkunderako.

Ahozko jardunean trebatzeko formazioa landu eta eskaini

Ildo beretik planteatzen du Mikel Zalbidek (2016) etorkizun hurbileko lehen erronka, eskolak duen egitekoan «lehenbizi ikasi, gero egin» paradigmatik «eginez ikasi» gorpuztu beharra aldarrikatzen baitu. Izan ere, bere

ikuspegitik, eskolaren egitekoak dira etxetik euskaldun diren ikasleen gaitasuna hobetzea eta etxetik erdaldun diren ikasleak euskalduntzea (besteak beste); eta horiek behar bezala burutzeko, ezinbestean «eginez ikasi» paradigma horretara moldatu beharra dago, hau da, ahozkotasanari berebiziko garrantzia eta zentraltasuna ematea ezinbestekoa da.

Eskolan berriaz landu beharko litzateke ahozko jarduna. Gaur egun, lehen hizkuntza gaztelania duten ikasle kopurua gero eta handiagoa da D ereduan. Eskola da haietako askorentzat euskara ikasi eta erabiltzeko gune bakarrenetakoa. Eskolan curriculuma euskaraz eginez ari dira euskara ikasten, eta testuinguru formalean. Horrek zer esan nahi du? Eskolako testuinguruari eta curriculum edukiei lotuta jaso eta erabiltzen dutela euskara.

«Erabili» kakotxen artean, izan ere, Soziolinguistika Klusterra bideratzen ari den ahozkoaren gaineko ikerketetatik ikusi baitugu euskaraz entzun, irakurri eta idatzi asko, baina irakaslearekin edo ikasleen artean hitz egiteko tradizio txikidun sistema dela gailentzen dena oraindik (Zabala, 2015). Ildo horretatik, baditugu hainbat erronka ahozko gaitasuna landu eta erabilera sustatzeari begira: murgiltze-ereduaren oinarriak eta esku hartzea berritzea, berrikuntza egitea, halaber, gelako dinamiketan, hizkuntza-irakaslearen arduratik harago hezkuntza-komunitatearengan banatzea erantzukizuna.

Euskal-hiztun dentsitatearen arabeko antolamendua eta hizkuntza politika

Lehenago ere aipatu dugu: **Euskal Herria ez da homogenea** euskararen presentziari, ezagutzari eta erabilerari dagokionean. Azken 30 urteotan ere desberdintasunak arretaz hartu dira aintzat, baina etorkizunean ere ezaugarri horien banaketa are eta kontu handiagoz hartzea komeniko da, ziur asko, horren arabeko lehentasunak ezartzeko.

Askotan lurralde antolamenduan hartzen diren erabakiek hizkuntza politika publikoek baino eragin handiago dute euskararengan (Gorri, 2017). Ildo horretan, Zalbidek (2016) euskararen presentziaren arabera proposatzen duen udalerrien banaketa oso interesgarria dela esan daiteke. Berak lehentasunezko hiru gune nabarmentzen ditu.

Alde batetik **arnasguneak** deiturikoak ditugu, hain zuzen, euskara naturalki transmititu eta erabiltzen den guneak. Bere hitzetan gune horien etorkizuna bermatzea **lehentasunezko eginkizuna** du euskal komunitateak, hasteko, «euskara indarberritu nahi badugu (...), eragingarriago [delako] arnasguneetan saiatzea hortik kanpora jardutea baino. [...] arnasguneen ezin ordezkatzeko lehentasuna behin eta berriro azpimarratu beharra dagoela» (Zalbide, 2016). Horretan «arnasguneen funtsezko izaera aitortzetik bere aldeko neurri sendoak aplikatzera pasa behar dugu lehenbailehen.» (Zalbide 2016).

Era berean, arreta berezia jarri beharko litzateke berak sailkatzen dituen BZ-6c erako udalerrietan, alegia, non eta euskararen erabilera konparatiboki handi samarra den: **biztanle-kopuru tartekoa** (ez handi, ez txiki), eskualde-buruak eta euskaldun dentsitate handikoak. Horietan, euskararen erabilera orokortua ez den arren, hainbat herritarrek euskaraz egiten du sarri eguneroko jardun arruntan; zenbaitek bietara; hainbatek erdaraz. Zalbideren ustez, horietan egon daiteke, arnasguneekin batera, **euskalgintzarako oinarririk sendoena** (Zalbide, 2016). Eta horregatik planteatzen du bertan «herritar euskaldunen arteko harreman-sare informalak bizirik mantentzeko neurriak hartu beharko [direla] [...] eta zabaldu eta indartu harreman-sare berriak (ibidem)».

Hirugarrenik, erdara nagusi den eremuetan «euskarazko hiztun-taldeak edota harreman-sareak eratzea beharrezkoa da, goitik beherako euskarazko eskolatzeko eta alfabetatzeko aukera ugartuz eta behetik gora [...] euskaldun-jendearen arteko harreman-sare informalak eratu, zabaldu, indartu eta bizirik mantenduz (Zalbide, 2016).

Hiriek ere garrantzia estrategikoa dutela ezin da ukatu. Hiriek beraien baitan biltzen dituzte euskal-hiztun kopuru handienak eta horrek hizkuntzaren etorkizunerako aintzat hartu beharreko espazio bilakatzen ditu ezinbestean. Hiriek, ordea, ez dute txikiagoak diren zonaldeen hiztun-komunitateetako harreman eta errealitatearik partekatzen. Interakzio sozialak bestelakoak dira eta hizkuntzaren erabilera ezinbestean horietara lotua doa.

Horren harira, Xabier Aierdik (2016) BAT aldizkarian proposatzen du hizkuntzaren erabilera sustatu eta bultzatuko duten harremanak sortu behar

direla hiriaren baitan, hiria bera euskararentzako komunitate bihurtuz. Zentzu berean proposatzen du Txerra Rodriguez-ek iruditeria sozialean eragin beharra urbanoagoa eginez (Rodriguez, 2017).

Hizkuntza dimentsio subjektibotik azertu

Jone Miren Hernandezek (2016) proposatzen digu **hizkuntza dimentsio subjektibotik azertzea**, non, **praktikaren ikuspegiak** eta ez hainbeste esentziarenak balioa hartzen duen. Begirada horretatik hiztunaren subjektibotasuna kontuan hartu beharrekoa dela jarriko du agerian; gorputzak, emozioek, eguneroko jarduerak eta horien performazioak (gauzatzeak) euskararen gaineko fenomenoetan nolako eragina duten ikusteko aukera ematen baitute.

Norbanakoari erreparatzeak ahalbidetzen du hizkuntza-erabilerak erakutsi ditzakeen errealitate berriak ulertzera irekia egotea. Besteak beste, tradizionalki erabili diren «hiztun berri» - «hiztun zahar», «bertakoak» - «kanpokoak», «euskaldunak» - «erdaldunak»... bezalako kategoria baztertzailen mugez jabetzekoa: hiztun berrien ezaugarri eta praktikek auzitan jartzen baitute orain arte ezarritako banaketa horien baliagarritasuna, bai eta euskal hiztunari egotzi zaion irudikari eta identitatea ere. Hiztunaren praktikak testuinguru euskaldunak sortzea, hiztuna irudikatu eta subjektibatzea, hizkuntza gorpuztea eta identitate kulturala gauzatzea dakarren heinean, beraz, izaera kolektibotik urrundu eta norbanakoari erreparatzen hastea jotzen du egileak etorkizuneko erronkatzat.

Euskal soziolinguistika landuko duen ikergune baten beharra

Mikel Zalbiderekin batera pentsatzen dugu euskararen biziberritze-prozesuaren mesedetan, beharrezkoa dela hausnarketa-gune bat abian jartzea, hausnarketa-etxe bat, non eta prozesu horren inguruan gogoeta estrategikoa egingo den. Berak hiru ataletan banatzen du gogoeta estrategikoaren ondotik eratorritako eginkizunen multzoa: lan estrategikoa, aplikazio-saio taktikoak eta ebaluazio-saioak (Zalbide, 2016).

Bere hitzetan, aplikazioaren esparruan lan eskerga egin da euskararen biziberritze-prozesuan, bai behetik gorako ekimenetan, eta baita goitik beherako noranzkoan doazen plangintzetan ere. Baina kexu da, estrategia-ren inguruko hausnarketan, eta, batez ere, ebaluazioaren alorrean herren dabilela prozesua. Azken finean, planteatzen du ez dagoela konparaziorik hizkuntza indarberritzeko ezarritako giza baliabide zein baliabide ekonomi-koetan egiten den inbertsioaren eta langintza horri buruzko gogoeta-lan teorikoari eskainitakoaren artean (Zalbide, 2016).

Bibliografia

AIERDI, X., 2016. Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Mikel Zalbideren testuaren inguruko hausnarketa marjinalak. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, Issue 100, 209-229.

ALTUNA, O. & BASURTO, A., 2013. *Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. <http://www.soziolinguistika.eus/Gida>. [Azken kontsulta: 2017.03.02]

ETXENIKE, A., 2017. Positibo, neurrian. *Euskararen bilakaera soziolinguistikoa*. Udako seriea. : http://www.berria.eus/udako_serieak/euskararen_erabilera_soziolinguistikoa/lehenengoa.php [Azken kontsulta: 2017 09 06].

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Soziolinguistika Klusterra, 2013. *Ikasleak hiztun: 2011ko Arrue Proiektua. Ikerketaren emaitza. Adituen iritzi-azalpenak*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

GORRI, E., 2017. Etorkizuneko erronkak. *Euskararen bilakaera soziolinguistikoa*. Udako seriea. http://www.berria.eus/udako_serieak/euskararen_erabilera_soziolinguistikoa/bostgarrena.php [Azken kontsulta: 2017 09 06].

HERNANDEZ, J.M., 2016. Jarrera eta motibazio kontzeptuez haratago... Hizkuntza kultura, praktika eta emozioak. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*. Issue 99, 179-195.

IURREBASO, I., 2012. Euskararen erabilera. Diagnostiko bat datuen argitan. Argitaratu gabea <http://www.soziolinguistika.eus/files/I%C3%B1aki%20Iurrebaso-%20EHU2012.pdf> [Azken kontsulta: 2017.03.02].

IURREBASO, I., ALTUNA, O. (Koord.) 2015. *Udalerrri euskaldunak EAEn: egoera eta bilakaera 1981-2011*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

JAUREGI ETXANIZ, P., SUBERBIOLA UNANUE, P., 2014. *Aldahitz ikerketa 2014 - Eusle metodologia eta hizkuntza ohituren aldaketa lan munduan*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

MARTINEZ DE LUNA, I., 2001. Euskal Herriko gaztetxoan hizkuntza egoera aztertzeko eredu orokorraren proposamena. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, Issue 40.

RAMOS, R., 2017. Salbuespena. *Euskararen bilakaera soziolinguistikoa*. Udako seriea. http://www.berria.eus/udako_serieak/euskararen_erabilera_sociolinguistikoa/laugarrena.php [Azken kontsulta: 2017 09 06].

RODRIGUEZ, T., 2017. Pantaila aldatzeko sasoa. *Euskararen bilakaera soziolinguistikoa*. Udako seriea. http://www.berria.eus/udako_serieak/euskararen_erabilera_sociolinguistikoa/bigarrena.php [Azken kontsulta: 2017 09 06]

Soziolinguistika Klusterra, 2017. *Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa*. *Euskal Herria*, 2016. http://www.sociolinguistika.eus/files/hekn2016-_eu_1.pdf [Azken kontsulta: 2017 07 28].

URANGA, B., 2017. Bost urte barru. *Euskararen bilakaera soziolinguistikoa*. Udako seriea. http://www.berria.eus/udako_serieak/euskararen_erabilera_sociolinguistikoa/hirugarrena.php [Azken kontsulta: 2017 09 06].

ZABALA, J., 2015: Tolosa: Ahozko laborategia. Lau urteko esperientzia DBHko ikasgeletan. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*. Issue 96, 45-67.

ZALBIDE, M., 2016. Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrrera begirako erronkak. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, Issue 100, 11-190.